



Mikel TABERNA IRAZOKI, “KAPI”

Hautagaiarenak, 1992, Iruñeko Udala

Mendearen ilunabarrean, 1996, Arabako Foru Aldundia

Bota xoxa!, 1999, Elkarlanean/Debako Udala

Errege eguneko panpina, 2000, Kutxa Fundazioa

Txokolatzeko dinamita, 2001, Susa

Hautsa bizigai, 2005, Elea

Ibaiak nahi duen tokiraino, 2006, Pamiela

El bizcocho de casa

Mikel TABERNA IRAZOKI, "KAPI"

Hace treinta y seis años

En Alkaiaga (Bera —espero que no se me enfaden los amigos lesakarras—), hace ahora treinta y seis años, siendo de familia *euskaldun*, era un muchacho bastante inconsciente (me refiero a la conciencia lingüística, aunque el lector es libre de generalizar), que tenía su lengua materna medio olvidada. La escuela, por una parte, y el nuevo mundo que llamaba a nuestra puerta, por otra, hicieron mella en nuestra generación. Las revistas comenzaron a publicarse en color, y la televisión (en blanco y negro) se introdujo en nuestras casas. La modernidad hablaba en castellano, y era verdaderamente atractiva. No era de extrañar que perdiéramos nuestro idioma.

Fue así como vine a Pamplona aquel año de 1974, a estudiar Biología en la Universidad del Opus Dei. En la maleta, junto al bizcocho de nuestra madre, aparte de la ropa y poca cosa más, también traía el idioma aprendido en casa, pero bastante deteriorado; aunque lo entendía, no era capaz de hablarlo. A aquel jovencito atrevido de diecisiete años no le faltaba en qué utilizar su energía (cosa de la edad) y vitalidad, de las que hacía gala, siempre y cuando fuera consciente de qué carecía...

258

En la capital me topé con las circunstancias que hicieron que yo decidiera reaprender la parte que había perdido, a la vez que me alfabetizaba en aquella lengua que los poderes establecidos se obstinaban en relegar a la marginación.

Es bien conocido el clima de agitación social que se vivió por estos lares en los años que transcurrieron de 1970-75 en adelante. Se extendió un movimiento de apoyo en favor de todo lo prohibido, a la manera del fuego cuando sopla el viento sur. Juntamente con otros, se propagó un fuerte sentimiento de protección hacia los idiomas históricamente postergados por el poder oficial, así como hacia sus hablantes.

En lo que respecta a los que nos encontrábamos en un caso semejante al mío, fue una época en la que descubrimos que estábamos perdiendo algo muy valioso, que nos empobrecíamos día a día como consecuencia de lo que se nos escapaba por aquellos bolsillos agujereados de nuestra ignorancia.

Aquel proceso de completar o recuperar mi euskera carcomido no fue en absoluto costoso para mí y, por el contrario, me llenó de satisfacción. ¡Ahí estaban las palabras-frases-voces... que había olvidado! ¡Ocultas en los recovecos de mi cerebro! ¡Qué alegría al recuperarlas!

La cuestión es que en poco tiempo pasé de ser alumno a ser profesor, dejé de lado mi rimbombante título de biólogo, y me dediqué a enseñar euskera a otros adultos.

* Traducción realizada por el autor, y por Orreaga Urbiola Casales, Biblioteca Pública de Pamplona-Yamaguchi

Amaren bizkotxo

Mikel TABERNA IRAZOKI, "KAPI"

Orain dela hogeita hamasei urte

Alkaiagan (Beran —espero dut Lesakako lagun onak ez haserretzea—), familia euskaldunekoa izanagatik, euskara erdi galdua zuen mutiko azolagabe samar bat nintzen (hizkuntzaren gaineko oharpenaz ari naiz, nahiz eta irakurleak libre duen orokortzea ere) orain dela hogeita hamasei urte. Eskolak, alde batetik, eta mundu berriak, bertzetik, eragin handia izan zuten nire belaunaldikoen artean. Aldizkariak koloretan argitaratzen hasi ziren, eta telebista (xuri-beltzean) etxera sartu zitzaigun apopilo. Erdaraz heldu zen modernitateak dezente tiratzen gintuen. Euskara galtzea ez zen misterio.

Gisa hartan, 1974. urtean, Iruñera etorri nintzen, Opus Deiren Unibertsitatean Biologia estudiantzera. Maletan, amaren bizkotxoarekin batera, arropa eta gainerakoetatik aparte, etxean ikasiriko hizkuntza kraskatu bat ere ekarri nuen; euskaraz konprenitzen nuen, baina solas egiteko ez nintzen gauza. Hamazazpi urteko gaxte harroko hark bere baitan sentitzen zituen sasoiak (adin kontua) eta bizi-gosea zertan erabili ez zuen falta; zer zuen exkax konturatuz gero...

Hiriburuan aurkitu nuen giroari esker, galdua nuena berriz ikasteko erabakia hartu nuen. Bidenabar, alfabetatu ere egin nintzen, agintean zegoen botereak hizkuntza zaharra zokoratzeko erakusten zuen borondateari kontra eginez.

Kontu ezaguna da zer-nolako inarrosaldia gertatu zen inguru hauetan 1970-75etik aitzinerako urteetan. Gauza ukatu guzaien aldeko mugimendua zabaldu zen, sua haize hegoarekin bezala. Eta, gainerako gaiekin batera, erakunde ofizialek historikoki bazterturiko hizkuntzak eta haietan aritzen ziren hiztunak babesteko sentimendua ere fuerte hedatu zen.

Nirea bezalakoen kasuan, urrea galtzen ari ginela konturatzeko tenorea izan zen; alegia, ezjakintasunaren sakela zulatuetatik isurtzen zitzaigunarekin pobretzen ari ginela egunetik egunera.

Euskara pipiatu hura osatu edo berreskuratzeko prozesuan, hizkuntzarekin gozatzeko modua izan nuen. Hortxe zeuden ahantziriko hitzak-esaldiak-doinuak...! Buruaren xirrikitueto sasi-xokoetan! A, ze poza, haiek berriz ere aurkitzean!

Kontua da denbora laburrean ikasle izatetik irakasle izatera pasatu nintzela eta, nire biologo titulu ddotorea alde batera utzirik, zenbait urtez jende helduari euskara irakastea izan nuela bizibide.

259

Toma de contacto con la literatura

Fue entonces cuando empecé a leer prensa en euskera (*Zeruko Argia*, *Anaitasuna...*) y a adquirir los primeros libros de escritores vascos. Comencé mi particular colección de nombres: Joxan Artze, Atxaga, los Zabaleta (Patxi e Iñaki)... Principalmente leía poesía, tal vez influido por el éxito que en aquel momento tenía la canción vasca de autor. A través de los integrantes de *Ez dok Amairu* y demás cantantes de similares características tuvimos la oportunidad de conocer infinidad de hermosos poemas. Estaba por un lado la poesía popular, anónima en gran parte, y por otro los poetas de la época: Lete, el aresoarra Arregi, Izagirre... Al igual que las composiciones de históricos bertsolaris que nos hacían gozar tanto o más que los anteriores: Bilintx, Xenpelar, Txirrita...

A propósito de bertsolaris, no puedo dejar de mencionar una obra cuya lectura me impactó especialmente en aquel tiempo, *Odolaren Mintzoa* del bajonavarro Fernando Aire, el gran *Xalbador*.

De cualquier modo, la literatura no había sido nunca un mundo del todo extraño para mí. En la escuela intentaron inculcarnos en cierta manera el hábito de la lectura, pero en mi caso, sin duda, la influencia más importante fue la recibida en nuestra propia casa. Comenzando por los tebeos de todo tipo, que yo leí en abundancia, o los libros de aquella colección mixta (letra e imágenes) de la editorial Bruguera, así como los de series juveniles de aventuras (Enid Blyton y demás), hasta llegar a las obras “más serias”.

260

Gracias a mi madre y al mayor de mis hermanos, siempre tuvieron un lugar reservado en el salón de casa. No era una gran biblioteca, pero sí había un número importante de ejemplares, con la enciclopedia Larousse incluida. Allí comencé, con mis catorce o quince años, cuando me cansaba de las tareas escolares, a hojear aquellos libros y a leer algunos párrafos que me llamaban la atención. Las obras de don Pío (era de ley que en las estanterías estuviera Baroja; después el resto), García Márquez, Boris Vian, Carmen Iráizoz... y unos cuentos de Ignacio Aldecoa que recuerdo de manera especial (sin olvidarnos nunca del tomo 7 de la Larousse —“*Marti-Ozu*”—, que nos regalaba aquel *Nudo sdraiato* de Modigliani).

Sea como fuere, con aquel equipaje comencé a escribir algo durante esos años en que estuve de profesor de euskera (inicialmente en Arturo Campión y en la *gau eskola* de la Rotxapea; más tarde en los cursos intensivos de la Diputación y en la Escuela de Idiomas).

Mi primer trabajo escrito vio la luz en 1976, en un programa de fiestas de Bera. Se titulaba “*Gure inguruaz*”, y se trataba de un sencillo trabajo en el que mostraba mi preocupación por el deterioro de nuestro entorno ambiental.

En 1981 nació en el mismo Bera *Ttipi Ttapa* (una estupenda publicación, que en la actualidad, fuertemente arraigada, se distribuye por Baztan, Malerreka, Leitzaldea y Bidasoaldea, prima hermana de otras que se reparten por otras zonas de Navarra), adonde envié un buen número de colaboraciones (crónicas sobre bertsolarismo, trabajos pseudo-literarios...).

Recuerdo que al igual que *Ttipi Ttapa*, íntegramente en euskera, en Leitzta publicaron varios números de una revista titulada *Plazaola*, y que en la comarca de Pamplona también surgieron

Literaturarekin harremanetan hasi

Orduan hasi nintzen euskarazko prentsa irakurtzen (*Zeruko Argia, Anaitasuna...*) eta euskal idazleen lehenbiziko liburuak eskuratzen. Nire izen-bilduma partikularra egiten hasi nintzen: Joxan Artze, Atxaga, Zabaletarrak (Patxi eta Iñaki)... Poesia irakurtzen nuen, bereziki. Baliteke garai hartako euskal kantagintzaren arrakastak zerikusia izatea horretan. Ez Dok Amairuko eta molde bereko gainerako kantarien bidez makina bat olerki eder ezagutzeko aukera izan genuen. Herri poesia gehienbat anonimoarekin batera, garaiko bertze egile batzuk: Lete, Arregi aresoarra, Izagirre... Eta igual (edo are gehiago) gozarazten ziguten bertsolari ospetsuenen lanak ere bai: Bilintx, Xenpelar, Txirrita...

Hain zuzen ere, bertsolaritza dela eta, nahitaez aipatu beharko nuke zirrara berezia eragin zidan idazlan bat: Fernando *Aire Xalbador* urepeldar handiaren *Odolaren Mintzoa*.

Nolanahi ere, lehenagotik ere literatura ez zen txoil mundu arrotza niretzat. Nondik eta nola? Eskolan saiatu ziren irakurtzeko ohitura gure baitan txertatzen, baina, nire kasuan, dudarik gabe, handiagoa izan zen etxekoen bulkada. Lehenbizian komikiak izan genituen, eta haietatik poliki asetu nintzen; gero *Bruguera* argialetxearen sail misto hartako (hitza eta irudiak) aleak etorri ziren, bai eta gaztetxoentzat idatziriko abenturak ere (Enid Blyton eta haren gisako egileenak); eta, hondarreko, helduentzako liburu "serioak".

Amari eta anaia zaharrenari eskerrak, gure etxeko salan liburuek beti izan dute leku bat, haientzat erreserbatua. Ez sekulako biblioteka, baina multzo pollita bai, Larousse entziklopedia eta guzi. Hantxe hasi nintzen ni hamalau-hamabortz urtetan, eskolako lanekin aspertzen nintzelarik, ale haien orriak pasatzen eta pasarteak irakurtzen: on Pioren lanak (apalategian Barojarenak nahitaez; gero gainerakoak!), García Márquez, Boris Vian, Carmen Iráizoz... eta nire baitan arrasto sakona utzi zuten Ignacio Aldecoaren ipuin bilduma batzuk (ahantzi gabe Larousseko 7. liburukia—*"Marti-Ozu"*—, Modiglianiren *Nudo sdraiato* kilikagarri hura ekarki zuena!).

Nolanahi ere, oinarri horiek nituela, euskara irakasle aritu nintzen urte haietan (Arturo Campionen eta Arrotxapeko gau-eskolan lehenbiziko; Diputazioaren ikastaro trinkoan eta Hizkuntz Eskolan gero) hasi nintzen zerttobait idazten.

Argia ikusi zuten lehenbiziko hitzak Berako bestetako programa batean agertu ziren, 1976. urtean. "Gure inguruaz" izeneko artikulua koxkor batean, gogoeta xume bat egin nuen gure eskualdeko ingurumenaren hondamenaren gainean.

1981. urtean *Ttipi Ttapa* jaio zen Beran bertan (gaur egun, sustraiak sendo, Baztanen, Malerrekan, Leitzaldean eta Bidasoaldean zabaltzen den aldizkari zoragarri hori; bertze eskualde batzuetan, bizkorxeago edo ahulxeago, etxez etxe banatzen diren gainerakoen sende), eta tarteka-tarteka kolaborazioak bidali nituen (bertsolaritzari buruzko kronikak, idazlan sasi-literarioak...).

Aldizkari hura bezalaxe, euskara hutsean, Leitzan *Plazaola* publikatzen zen, euskara hutsean, eta Iruñe aldean ere izan ziren bertze batzuk (*Aldizkaria, Aska...*), euskarari lekua utzi ziotenak. Oasi ttipiak ziren euskararentzat basamortu zen nafar komunikabideen alorrean (*Principe*

otras en formato bilingüe (*Aldizkaria, Aska...*). Todas aquellas iniciativas constituyeron pequeños oasis para el euskera, dentro del inhóspito desierto que suponían los medios de comunicación en nuestro territorio foral (el suplemento en euskera de *Príncipe de Viana* estaba próximo a desaparecer). Para gente como yo, el poder disponer de aquellos espacios resultaba fundamental, como lugares de fogeo donde el aprendiz de escritor podía ir desarrollando sus aptitudes.

Incursiones literarias (...) en grupo

Puestos a buscar el siguiente hito en mi andadura, debería mencionar el año 1984, puesto que en esa fecha (para hacer frente o, quién sabe, dar la razón a las oscuras predicciones de Orwell) nació en nuestra capital la revista literaria *Korrok*. Al amparo de la librería *Auzolan*, nos reunimos seis amigos (Xabier Díaz, Ana Iribar, Josetxo Azkona, Josune Aranburu, Jon Alonso y yo mismo) para traer al mundo una criatura un tanto desvergonzada. Al poco tiempo, se nos sumó un joven dibujante, Patxi Uharte, el hoy conocido *Zaldi Eroa*. Posteriormente tuvimos muchos más colaboradores (Jabier Alonso, Aingeru Epaltza, Patziku Perurena, Txiki Idoate, Gorka Setien, Isidro Rikarte, Joakin Balentzia, Bixente Serrano, Xanti Begiristain, Xabier Agirre Urteaga, Iñaki Azkona, Mikel Bujanda, Asisko Urmeneta...).

Para comprender la razón de ser de aquella publicación, habría que fijarse en el boom de las revistas literarias en euskera que había tenido lugar en los principales centros culturales de Euskal Herria (*Pott* en Bilbao, *Panpina ustela*, *Oh Euzkadi!* y *Susa* en Donostia, *Maiatz* en Baiona, *Kandela* en Vitoria-Gasteiz...); realmente un tremendo estallido que dio lugar a un importante número de publicaciones (literarias) en pocos años. Muchos escritores, o aspirantes a serlo, habían decidido reunirse en grupo y crear ventanas por donde poder mostrar sus obras, así como para expresar sus opiniones sobre todo lo relativo a la creación literaria, o artística en general.

262

En Pamplona surgieron dos publicaciones en un espacio muy corto de tiempo durante los primeros años de esa fértil década de los 80: *Pamiela* (al mismo tiempo que la revista, también la editorial), en la cual escribí alguna colaboración, y nuestra *Korrok*.

A través de *Korrok*, tuve la oportunidad de compartir mi afición por la literatura y de intercambiar opiniones con otras personas afines (unas cuantas merienda-cenas de por medio). Por supuesto, también la de seguir curtiéndome en esto de la escritura. Recuerdo que allí aparecieron, aparte de algún artículo periodístico (entrevistas, críticas de libros) y de algún que otro poema, mis primeras narraciones mínimamente consistentes ("*Paco Camino nigarrez*", "*Eguzkiaren beroaz*", "*Nahiz hanka bana hautsi*"...).

Caminando en solitario

En 1988, los impulsores de *Korrok* dimos por finalizada nuestra aventura y nos dijimos adiós, convencidos de que cada uno debía seguir su propio camino. Mi profesión también sufrió alteraciones, de ser profesor pasé a ser traductor. El mismo instrumento de trabajo, la lengua, pero con distinto uniforme. Al mismo tiempo, nuestros hijos decidieron que era hora de aso-

de Vianaren euskarazko gehigarria hil hurrean zen). Eta ni bezalakoentzat agerpen haiek funtsezkoak izan ziren, idazlegaiak trebatzen joateko plazak behar dituelako.

Taldean literatura (edo) jorratzen

Nire bideko hurrengo mugarria bilatzen hasita, 1984. urtea aipatu beharko dut, urte hartan *Korrok* aldizkari literarioa sortu zelako gure hiriburuan (Orwellen iragarpen beltzei kontra egiteko... edo arrazoa emanda!). *Auzolan* liburudendaren babesean, sei lagun elkartu (Xabier Diaz, Ana Iribar, Josetxo Azkona, Josune Aranburu, Jon Alonso eta ni nerone) eta ume lotsagabe hura munduratu genuen. Segituan komikigile gaxte bat juntatu zitzaigun, Patxi Uharte, gaur egungo *Zaldi Eroa* ezaguna. Baina gero kolaboratzaile aunitz izan genuen (Jabier Alonso, Aingeru Epaltza, Patziku Perurena, Txiki Idoate, Gorka Setien, Isidro Rikarte, Joakin Balentzia, Bixente Serrano, Xanti Begiristain, Xabier Agirre Urteaga, Iñaki Azkona, Mikel Bujanda, Asisko Urmeneta...).

Aldizkari haren izatea entenditzeko, Euskal Herriko bertze probintzietara begiratu beharko genuke. Haietan ordukotz literatur aldizkariaren booma gertatua zen (*Pott* Bilbon, *Panpina Ustela*, *Oh Euzkadi!* eta *Susa* Donostian, *Maiatz* Baionan, *Kandela* Gasteizen...), egiatan eztanda izugarria, hameka (literatur) aldizkari ekarri zuena urte guttiren bueltan. Idazleak eta idazlegaiak taldean elkartu eta leihoak ireki zituzten, bertatik euren lanak eta literaturarekin edo sormenezko artelanekin, oro har, zerikusia zuten gaiak erakusteko.

Iruñean, oihartzun gisara edo, bi aldizkari sortu ziren denbora ttikian, 80ko hamarraldi jori haren lehenbiziko urteetan: *Pamiela* (aldizkariarekin batera, argitaletxea ere bai), zeinarentzat ere kolaborazioen bat idatzi bainuen, eta gure *Korrok* hura.

263

Korrok zela medio, eskribitzeko afizioa bertze pertsona batzuekin konpartitzeko eta iritziak trukatzeko aukera izan nuen (berendu-afariak tarteko). Jakina, idazten ikasten segitzeko ere bai. Gogoan dut, artikulu periodistiko (kritikaren bat, elkarriketak...) eta poemez aparte, han agertu zirela erakusteko moduko nire lehenbiziko narrazioak ("*Paco Camino nigarrez*", "*Eguzkiaren beroaz*", "*Nahiz hanka bana hautsi*"...).

Bakarrik segitu beharko

Korroreko bultzagileok 1988an geure abentura akabatutzat eman eta adio erran genion elkarri, bakoitzak bere bidea egin behar zuelako ideiarekin. Nire lanbidean ere aldaketa izan zen, irakasle izatetik itzultzaile izatera egin nuen mudantza. Laneko erreminta bera, euskara; jantzia diferentea, ordea. Seme-alabak ere orduan erabaki zuten mundura agertzea, 87an eta 90ean! Horrek ere badu ikustekoa norberaren bizitzaren martxan!

Korrok geldituagatik, nire baitan bizi zen, nolabait, har bat, paperak letraz betetzen segitzeko xaxatzen ninduen. Geroztik, talde-lagunik gabe, hari kasu eginez jarraitu nuen, xede jakinik gabeko materiala sortzen eta eskatzen zizkidaten kolaborazioak prestatzen. Hagitz gustura aritu nintzen *Egunkariaren Nafarkaria* gehigarria tarteka-tarteka nire gogoeta txoroak bidaltzen; bai eta *Euskalerrria* irratia mikrofotik solasean ere. Bi komunikabideak zinez inportanteak izan

marse a este mundo, en el 87 y en el 90. Fueron muchos cambios que, sin duda, influyeron en el devenir de mi vida.

Desaparecida *Korrok*, subsistía dentro de mí un gusanillo que me animaba a seguir embotornando papeles. A partir de entonces, sin compañeros en quien poder apoyarme, seguí obediéndole, creando materiales sin un fin concreto y preparando las colaboraciones que ocasionalmente me solicitaban. Disfruté enviando mis sesudas reflexiones al suplemento *Nafarkaria* de *Egunkaria*, así como hablando a través de los micrófonos de *Euskalerría Irratia*. Dos medios de comunicación que fueron realmente importantes, porque eran terreno de prácticas para los nuevos creadores, y porque ayudaron a tejer una red local de vascohablantes. El suplemento se publicó durante diez años, a partir de 1991, hasta que el Gobierno de Navarra decidió endurecer la política hacia el euskera y le retiró la subvención. La radio, por fortuna, aún sigue emitiendo, contra viento y marea, y espero que podamos disfrutar de ella durante largo tiempo, una vez que la Administración entre en razones y admita la sinrazón de todos los absurdos y vergonzosos obstáculos que ha ido interponiendo a su paso, cada vez que ha intentado normalizar su situación.

Así es como fui recopilando, poco a poco, un buen número de poemas y narraciones. Llamé a la puerta de alguna editorial, toc-toc, con los frutos de mi huerta en el cesto, en busca de comprador-receptor (y de opinión), pero sin gran fortuna.

264

Comencé entonces a enviar trabajos a varios concursos, y tuve la suerte de ganar alguno de ellos. En 1995, logré el *Ernestina de Champourcin* de la Diputación de Álava con una colección de poemas; con narraciones breves obtuve el *Tene Mujika* de Deba, en 1999, y el Donostia *Hiria* de la Kutxa de Gipuzkoa, en el año 2000.

Aquellos premios constituyeron una inyección de ánimo y de confianza para seguir por el camino que había emprendido, y además, las tres obras premiadas fueron editadas por sus organizadores en otras tantas publicaciones.

La posibilidad de publicar

Con aquella carta de presentación se me allanó el camino para poder publicar mis trabajos. El año 2001, de la mano de la editorial *Susa*, vio la luz *Txokolatezko dinamita*, volumen compuesto por ocho narraciones independientes, pero interrelacionadas entre sí.

Cinco años más tarde, en 2006, en esta ocasión con la editorial *Pamiela*, llegó la narración *Ibaiak nahi duen tokiraino*, con la colaboración de la ilustradora Maddi Irazoki. Gracias a aquella obra tuve la oportunidad de hacer realidad una idea que llevaba tiempo rondándome por la cabeza, la de introducirme en la selva de la literatura infantil y juvenil.

A día de hoy, tengo varios proyectos a medio camino, que espero lleguen a buen término, sin eternizarme en el intento, porque debo reconocer que soy extremadamente lento escribiendo.

A menudo le canto las cuarenta a mi hermano gemelo, ese que habita en mi cerebro, para que espabile y se apresure, pero él me hace callar, me dice que no es bueno andarse con prisa en estos menesteres; eso sí, que no lo deje, pero que tenga paciencia. Además (siempre termina

ziren, sortzaile-nahi ginenon trebaleku izan zirelako, eta nafar euskaldunon sarea josten lagundu zutelako. Gehigarria hamar bat urtez argitaratu zen, 1991n hasita, Nafarroako Gobernuak euskararen inguruko politika gaiztotu eta diru-laguntzarik gabe uztea erabaki zuen arte. Irratiak, zorionez, azpijoko guzien gainetik eta ezpata maltzur ooren azpitik, oraindik ere bizkor dirau, eta, agian ere, Administrazioak amore eman eta onartzen badu bidegabeak direla normalizazio-bidean paratu dizkion traba zentzugabe eta lotsagarri guztiak, luzaro iraunen du.

Nolanahi ere, gisa horretan, nire poema eta narrazio laburren bilduma osatzen joan nintzen ezarian-ezarian. Argialetxeren bateko atea jo nuen, kax-kax, baratzeko fruituak saskian, erosle-hartzaile (eta iritzi) eske, fortuna handirik gabe.

Orduan hasi nintzen lehiaketetara lanak bidaltzen. Eta haietako batzuk irabazteko suertea izan nuen. Poema bilduma batekin Arabako Diputazioaren *Ernestina de Champourcin* eskuratu nuen 1995ean; eta narrazio laburrekin, berriz, Debako *Tene Mujika*, 1999an, eta Gipuzkoako Kutzaren *Donostia Hiria*, 2000. urtean.

Sariak animo koxkorra eman zidaten, eta bide hartan segitzeko konfiantza puska ere bai. Gainera, hiru sari horiek bertze horrenbertze liburutan argitaratu zituzten antolatzaileek. Hura ere oso berri pozgarria izan zen, nahiz eta sarietako argitalpenen zabalkundea ez den gainarako liburuena bezain ongi zaintzen.

Argialetxe batekin liburua plazaratu

Fruituak umotzen ari ziren, nonbait, eta bakarka liburua argitaratzeko tenorea ailegatu zitzaidan. Susa argialetxearen eskutik, ipuin bilduma bat publikatu nuen 2001. urtean, *Txokolatzeko dinamita*, zortzi ipuinez osaturiko bilduma bat.

Handik bertz urtera, berriz, 2006an, *Ibaiak nahi duen tokiraino* narrazioa argitaratu nuen, *Pamielan*, Maddi Irazoki marrazkigilearen laguntzarekin. Hari esker, aspaldi burutan nerabilen gogoia egia bilakatzeko aukera izan nuen, haur eta gazteentzako literaturaren oihanean barneratzekoa, alegia.

Gaur egun baditut zenbait proiektu erdi hasiak, noizbait ere burutzeko esperantzan; ari naiz, baina aitortu behar dut dezente kostatzen zaidala aitzinera egitea. Motelegia ez ote naizen.

Neure anaia bixkiari, norberaren buruko etxolan bizi den horri, errieta ematen diot maiz, mugitzeko eta ez egoteko lo, baina berak erraten dit isiltzeko, ez dela ona presa izatea egin-kizun hauetan; hori bai, aritzetik ez gelditzeko, baina pazientzia izateko! Gainera (beti berdin amaitzen du bere erretolika), ez duela balio horrekin tematzea, zahartu naizelako, eta, gaurgero, ez naizelako hemendik aitzinera kanbiatuko. Eta ni, orduan, mutu gelditzen naiz. Beharko!

Bertzelako saioak

Denbora batean kolaborazio gehiago egiten aritu nintzen (*Egunkariako Begia*, *Nabarra*, *Xorroxin irratia*), baina horiek ere akabatu ziren, eta aurten sortetxera itzuli naiz, *Ttipi Ttipara*.

igual su discurso), que no merece la pena romperse la cabeza siempre con lo mismo, porque tengo que admitir que ya tengo unos cuantos años, y que a estas alturas ya no voy a cambiar. Entonces yo callo. ¡Qué remedio!

Actividades paralelas

Durante un tiempo seguí realizando colaboraciones en distintos medios (*Begia de Egunkaria*, *Nabarra*, *Xorroxin irratia*), aunque en un momento dado también deje de hacerlo, y esta temporada he regresado a donde comencé, a *Ttipi Ttapa*. Este tipo de trabajos constituyen una buena gimnasia para los duendes que pululan por nuestra cabeza (y trabajan a las órdenes del gemelo y mías), y sirven, igualmente, para que los lectores no se olviden de uno.

Tomé parte en un recital poético, con el grupo MAUT, creado para la ocasión, en compañía del dúo musical compuesto por Josetxo Goia y Pello Ramirez, y más recientemente también he participado, en actos del mismo corte, con los poetas de los grupos *Hatsa* y *Aspaldiku*, pero todas han sido intervenciones puntuales, sin llegar a establecer un proyecto que perdurara en el tiempo.

Además, me han llamado de diversos sitios para dar charlas, he aceptado la propuesta de ser miembro del jurado de algún premio, y durante seis años he formado parte del grupo de lectores *Irakurriz libertitzen gara* de la sociedad *Zaldiko Maldiko*, disfrutando de la agradable compañía de gente que ama la literatura.

266

No puedo dejar de mencionar, como cosa especial, la estrecha relación que mantengo con el excelente músico beratarra Joseba Irazoki. A través de él, varios poemas míos han tenido la oportunidad de escapar de su cárcel de papel y volar a los cuatro vientos.

Pero, por lo demás, durante estos últimos años, mi ejercicio literario comienza y acaba entre las cuatro paredes de la sala de estudio de casa. Paso el tiempo escribiendo, repasando lo escrito e investigando por mi cuenta (textos antiguos, historias de antaño...).

Escribir en euskera en Navarra

Corroboro la opinión expresada por los bibliotecarios a la hora de ofrecernos participar en este número de la revista TK: “*Resulta paradójico que haya lectores de Pamplona, de Estella, de Tudela que podrían darnos sin problema el nombre de media docena de autores japoneses o suecos y que, sin embargo, y a pesar de cruzarse con ellos por la calle a todas horas, tendrían serios problemas para mencionar unos pocos nombres de autores euskaldunes*”. Para muchos navarros (para demasiados, seguramente) todo lo que se hace en euskera les es ajeno. Probablemente muchos de ellos ni siquiera creerán que seamos tantos los que lo hablamos en nuestro territorio. O que hasta anteayer mismo, hasta la generación de nuestros bisabuelos y bisabuelas, era el idioma mayoritario en Navarra. ¡Cómo van a conocer el nombre de los escritores!

No se puede objetar nada a la gente de a pie por ese desconocimiento. Los verdaderos culpables son personas relevantes que ocupan importantes cargos en los estamentos claves de la

Halakoak gimnasia ona dira buruan ditugun iratxoentzat (anaiaren eta bion agindura ari diren horientzat), eta irakurle-jendea norberaz ez ahanzteko ere balio dute.

Poema errezitaldi batean parte hartu nuen aspaldixko, hartarako espres sortu genuen MAUT taldean, Josetxo Goia-Pello Ramirez musikari bikotearekin, eta berrikiago Hatsa eta *Aspaldiku* taldeetako poetekin ere bai, antzeko saioren batean, baina denak emanaldi jarraipenik gabekak izan dira, proiektu iraunkorrik mamitu gabe.

Horretaz gainera, zenbait tokitatik solas egitera joateko deitu didate, lehiaketaren batean epai-mahaiko kide izateko proposamena onartu dut, eta sei urtez *Zaldiko Maldiko* elkarteko *Irakurriz libertitzen gara* irakurle taldean ibili naiz, Iruñeko literaturazaleen konpainia ezin atseginagoan.

Gero, gauza berezia bezala, ezin dut aipatu gabe utzi Joseba Irazoki beratar musikari bikainarekin dudan lotura estua. Haren bidez nik eginiko poema mordoxka batek lau haizetara hegatzeko aukera izan du, eta hori preziorik ez duen oparia izan da niretzat.

Horietatik aparte, azkeneko urte hauetan, etxeko estudio-gelako lau pareten artean hasi eta akabatzen da nire ariketa literarioa. Zerbait idazten, lehendik eginikoa errepasatzen... ematen dut denbora. Eta paper zaharretan bilaka ere bai (Bidasoaldeko jendearen aspaldiko istorioak, hizkera...).

Euskaraz idaztea Nafarroan

267

Bat egiten dut liburuzainok TK aldizkariaren zenbaki honetan parte hartzeko eskaintza egiterakoan adierazi diguten iritziarekin, *“Iruñeko, Lizarrako edo Tuterako hainbat irakurlek aise emanen lizkigukete sei bat idazle japoniarren edo suediarren izenak eta, aldiz, beraiekin karrketan egunero-egunero gurutzatzen badira ere, larri ibiliko lirakete idazle euskaldun bakar baten izenaz oroitzeko. Harrigarria da!”*. Nafar anitzentzat (gehiegirentzat, segur aski) arrotza da euskaraz egiten den oro. Gure lurraldean bizi garen honenbertze gaur egun euskaraz aritzen garenik ere ez du sinetsiko askok. Edo atzo-herenegun, gure birraitona-birramonen belaunaldian, gehiengo baten hizkuntza zenik. Nola ezagutuko dituzte idazleen izenak!

Ordea, jende xeheak ez du kulpa handirik. Errudun nagusiak bertze batzuk dira, nafar gizartean erabaki garrantzitsuenak hartzen diren erakundeetan kargu potoloak dituzten pertsona izen-deituradunak, hain zuzen ere. Pentsa, bertako hizkuntzaren ezagutza eta erabilera trabatzeke legeak eta dekretuak aldarrikatzen dituzte! Gero, haien soka bereko ikastetxe eta hedabideetan, errealitatearen parte bat ezin ikusi duten irakasle eta informatzaile batzuek jokada borobiltzen dute. Euren oturuntza partikularretan elkarrekin ikusten ditut, *“Biba inorantzia!”* topa egiten, irri-ajarika. Herri honen alde ari direla dioten horiek, ikusi nolako mese-dea egiten dioten! Ez daitezela gero espantuka etorri, hemen kohesioa lortzeko lanean ari direla aho beteka erraten! Pena da, eta egoera jasaten dutenek pentsatu beharko lukete zergatik ezin diren gozatu lur honek dituen usain eta kolore guziekin (gure erkidegoan zinezko baztertuak euskara ikasteko aukera ukatzen zaienak dira!).

sociedad navarra. Promulgan leyes y decretos para dificultar el conocimiento y la utilización de una lengua propia. Luego, en los centros escolares y medios de comunicación de su cuerda, algunos docentes e informadores redondean la jugada, ocultando una parte de la realidad. Los veo todos juntos en sus banquetes particulares brindando a carcajadas, “¡Viva la ignorancia!” ¡Ese es el favor que hacen a este pueblo al que dicen servir! Que no vengan luego jactándose diciendo que trabajan sin descanso para conseguir su cohesión. Es lamentable, y todos aquellos que padecen las consecuencias de esta situación deberían preguntarse por qué no pueden disfrutar de todos los olores y sabores que tiene esta tierra (en nuestra Comunidad los verdaderos marginados son aquellos a los que se les niega la posibilidad de aprender euskera).

Afortunadamente, a pesar de todos los pesares, existe una parte importante de la población, que a uno u otro nivel, sabe acerca del euskera. Que lo habla, que lo entiende, que está dispuesto a aprenderlo, que lo aprecia... que lo considera propio. Para todos ellos, los que nos movemos en el campo de las letras vascas sí somos alguien.

Entre ellos están nuestros lectores, los que nos invitan a entrar en sus hogares. Saben euskera y no tienen problemas para saborear nuestra literatura (escrita en euskera o traducida al euskera), ya que se han alfabetizado en escuelas-ikastolas o euskaltegis.

Pienso, sin embargo, que aún hoy en día perdemos muchos posibles lectores, todos aquellos que, hablando el idioma perfectamente, no saben leerlo ni escribirlo. Han pasado la barrera de los cuarenta o cincuenta años, no tienen ningún problema para expresarse oralmente (muchos lo hacen mejor que en castellano), pero no han recibido jamás ningún tipo de ayuda para dominar la letra escrita. ¿Qué piensan de esta cuestión los flamantes consejeros de Educación que ha tenido y tiene Navarra? ¿Han computado alguna vez ese dato? ¿Y si alguien denuncia que Navarra está en este ámbito más atrasada que muchos de los países denominados como tercermundistas? ¿Soberbios e indolentes, seguirán brindando con sus copas?

268

Algunas consideraciones generales

Observando la tropa de escritores y traductores (y también de editores), sin hacer ningún estudio de tipo científico, diría que nuestro pequeño mundo es un territorio fértil. Refiriéndonos al número de gente en activo, podría hacerse una larga lista con los que actualmente escribimos. Si alguien lo duda, no tiene más que leer la obra de Joxemiel Bidador (¿qué decir de la persona y del investigador, y del gran vacío que sentimos?) *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra* (y añadir los nombres que han surgido desde 2004 hasta nuestros días). Formamos un nutrido grupo y, como podría confirmar cualquier especialista en el tema, algunos de entre nosotros se encuentran en lo más alto del escalafón de las letras vascas (consiguiendo los más prestigiosos premios o recibiendo los elogios de los críticos más exigentes).

Nuestros libros tienen buena acogida, en general, en los centros de enseñanza de los distintos niveles y en los euskaltegis. Por otra parte, existen grupos de lectura que funcionan con normalidad, y tenemos premios literarios dignos, aunque no demasiados, gracias al importante apoyo de algunos ayuntamientos, sobre todo.

Zorionez, oztopoak oztopo, bada hemen jende aunitz maila batean edo bertzean euskararen berri duena. Solasten dena, konprenitzen duena, ikasteko prest dagoena, maite duena... bere-tako duena. Horientzat guzientzat, euskaraz letragintzan ari garenak bagara norbait.

Horien artean daude gure irakurleak, euren etxeetara sartzera gonbidatzen gaituztenak. Badakite euskaraz eta, eskola-ikastoletan edo euskaltegietan alfabetizatu baitira, ez dute arazorik gure literatura dastatzeko (euskaraz sortua edo euskarara itzulia).

Nago, ordea, irakurlegai franko ez ote dugun galtzen, hainbatek, euskaraz inolako arazorik gabe hitz eginagatik, irakurtzen eta idazten ez dakielako. Berrogei-berrogeita hamar urtetik goiti dituzte, hiztun bikainak dira (erdaraz baino hobeki ari dira haietako asko), baina inork ez die laguntzarik eman letra idatziaz jabetzeko. Zer pentsatzen dute horri buruz Nafarroak izan dituen Hezkuntza kontseilari txit argi horiek guziek? Neurtu dute inoiz datu hori? Eta norbaitek salatzen badu Nafarroa "Hirugarren mundua" erraten dioten herrialde horietako makina bat baino atzeratuago dagoela arlo horretan? Harro soraio kopa altxatzen segituko dute? Kapaz!

Gure egoerari buruzko gogoeta orokor batzuk

Idazle eta itzultzaileen (eta argitaratzaileen) tropari begira, azterlan zientifikorik egin gabe, erranen nuke emankor eta jori ikusten dudala gure lurralde koxkorra. Kopuruari begira, gaur egun idazten aritzen garenon zerrenda luzea egin liteke. Sinesten ez duenak aski du Joxemiel Bidadorren (zer erran pertsonaz eta ikertzaileaz, sumatzen dugun hutsune handiaz?) *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra* irakurtzea (eta gehitzea 2004tik hona agertu diren izen berriak). Mordo bat bagara, eta, euskal literaturan aditua den edozeinek baieztatuko lukeen bezala, multzoko batzuk euskal letretako "lehenbiziko lerroan" ageri dira (sari ospetsuenak edo kritikari zorrotzenen goraipe-nak lortuta).

269

Ikastetxe eta euskaltegietan, oro har, gure liburuei harrera ona egiten diete. Bertzalde, badira primeran funtzionatzen duten irakurle taldeak, eta sari literario duinak ditugu, nahiz ez diren gehiegi, batez ere zenbait udal eskuzabalen babesari esker.

Literatura, zorionez, hagitz baliabide guttirekin nonahi egin daitekeen ariketa da. Baita Nafarroan ere! Baina euskarazko literaturgintzaren gainean, bereziki, eta euskal kulturgintzaren, oro har, eragina duten bertze faktore batzuk ere badaude. Eta horietan, gure Erkidegoa, Iparraldeko hiru probintziekin batera, Hegoaldeko bertze hiru lurraldeetan baino dezente apalago gaude. Kultur sormenaren inguruko industria propiorik apenas dagoen, euskarazko komunikabide indartsurik ere ez... Horien beharrik izanez gero, hangoetara jotzen dugu beti. Alde horretatik zor handia dugu gure auzoekin.

Beharbada ez da beharrezkoa industria eta komunikabideak gure lurraldean ere izatea. Harat-hunat ibiltzea lehen baino hagitzez errazagoa da. Astobideak autobide dira orain, eta birtualak ere baditugu (eta horien garrantzia sekulakoa izan daiteke). Ez dago arazorik elkarren berri izateko, hemen izanda ere han esku hartzeko!

Afortunadamente, la literatura es un ejercicio que se puede llevar a cabo sin necesidad de disponer de grandes recursos. ¡Incluso aquí, en Navarra! Pero existen factores que influyen en la producción literaria en euskera, concretamente, y también en la cultura vasca, en general. Y a esos niveles nuestra Comunidad, al igual que las provincias vascas del Norte, se encuentra mucho más limitada que los otros tres territorios. Carecemos prácticamente de industria cultural propia, y tampoco contamos con medios de comunicación fuertes en euskera... Cada vez que necesitamos de ellos, acudimos a casa de los vecinos. En esos campos tenemos una gran deuda con ellos.

Tal vez no sea necesario que ese tipo de industria y esos medios de comunicación se emplacen en nuestro territorio. Hoy en día es mucho más sencillo desplazarse de un lado para otro que hace unos años. Disponemos de autovías y autopistas, incluso virtuales (y el papel que pueden jugar estas últimas puede ser fundamental). No debería haber ningún problema para comunicarnos, para participar allí residiendo aquí.

Algunas voces echan en falta la existencia de un foco cultural potente que sirviera de referente para los vascohablantes navarros. Un lugar, que estuviera situado en la misma capital. Una estructura de ese tipo también ayudaría a crear un clima propicio para la literatura. Tenemos más bien pocos recitales, charlas, mesas redondas, foros de opinión... ¿Cómo conseguirlo? Necesitaríamos gente, dinero y un recinto. Escuché hace unos días a unos amigos discutiendo acerca de este tema: lo veo muy difícil, decía don Pesimista, alegando la época de crisis que padecemos; en estos tiempos es cuando nacen las mejores ideas, le replicó doña Optimista.

270

Y la vida continúa

Ya han pasado treinta y seis años desde que vine de Alkaiaga a Pamplona. Desde entonces, todos hemos cambiado bastante, Navarra (la zona del Bidasoa, la Cuenca de Pamplona...) y, por supuesto, yo mismo. Ha aumentado el número de personas que habla euskera, y nuestra lengua ha ganado espacios que anteriormente le estaban vetados. La literatura vasca, tanto en cantidad como en calidad, se encuentra mucho mejor que entonces. Yo, por mi parte, aunque me haya asentado en la capital, siempre que puedo me escapo al pueblo, a reunirme con la familia y con un grupo de buenos amigos. Procuero estar siempre atento, dispuesto a robar cualquier perla que salga de sus bocas, porque todavía sigo obsesionado con descubrir todo lo que esconde esta mágica lengua nuestra que un día estuve a punto de perder. Así voy completando una colección de hermosas palabras y de historias no menos fascinantes asociadas a las mismas. De vuelta para casa, con los bolsillos a reventar por todo lo recogido, y el bizcocho de nuestra madre en la mochila, subo silbando la cuesta de Belate en mi viejo coche, rodeado de gigantescos camiones que parecen querer devorarme.

Euskaldunontzat errefentziazko kulturgune indartsu baten falta ere aipatzen du zenbaitek. Toki bat, hiriburuan egon beharko lukeena. Halako zerbaitek literaturgintzarako giroa sortzen ere lagunduko luke. Errezitaldi, hitzaldi, eztabaida-saio, iritzi-truke eta abarretik, guttixko izaten da gurean. Nola lortu, ordea? Jendea, xoxa eta aterpe bat beharko genituzke. Horri buruz eztabaidan aritu ziren lehengoan bi adiskide: arrunt zaila dela bota zuen Martin Beltzek, krisi garaia delako; ideiarik hoberenak halakoetan sortzen direla egin zion kontesta Mari Jaiak.

Eta bizitzak jarraitzen du

Hogeita hamasei urte baditut Alkaiagatik Iruñera etorririk. Zerbait aldatu gara, harez geroztik, Nafarroa (Bidasoaldea, Iruñerria...) eta ni nerau! Berretu da euskaraz aritzen den jendearen kopurua, eta esparru gehiagotan egiten da. Euskarazko literatura, kantitatez eta kalitatez, orduan baino hagitzez hobeki dago. Ni, berriz, hiriburuan laketu badut ere, ahal dudan aldiroroterrira bueltatzen naiz, familiarekin eta lagun onekin egotera. Beti erne, haien ahoetatik isurtzen diren perlak ebasteko prest, oraindik ere segitzen baitut hitz eta istorio ederren bilduma osatzen, galtzeko arriskuan izan nuen hizkuntza sorgin honek bere baitan gordetzen duen guziarekin harritzen. Gero, berriz ere etxerako bidean, sakelak eta kolkoa harribitxiz ezin beteago ditudala, eta amaren bizkotxoa bizkar-zorroan, xixtuka igaten dut Belateko malda nire automobil xaharrean, zanpatu behar nautela iduri duen kamioi erraldoiz inguratua.